

Nafarroako Esaera Zaharrak. Urrotz.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Urrotz.

- 1597 *Antziñeko dantzariak erakusten dio atzekoari.*
Alaber buru egiten duenak bere menpekoei.
- 1598 *Ardiak esan omen zun: Ama Birjiña martxoko, ni mendian gallurrerako.*
Beiak berriz: Ni San Markon beldur.
Ardia martxoko belar berriaren ametsetan, beia berriz San Marko-ren kazkabarraren beldurrez.
- 1599 *Atiak ainbat maratilla beti.*
Ateak zenbat maratilla, zuk ainbat aitzeki.
- 1600 *Aur yaio ta aur biurtu.*
Ori gertatzen zartzean; aurra bezin ezindua zarra.
- 1601 *Azeria girgi, badago boltsa, ez dago boltsa, pasatzekotan pasa, azeria girgi*
- 1602 *Bertzendako apez, ta gerendako eskolaba ez.*
Besteari erakusten, eta gerok ez jakin zer nola egin. Eskolaba, eskolaua (eskolau) = meza-laguntzallea.
- 1603 *Bi sosen pupua, ta amar sosen trapua.*
- 1604 *Edari txarrak a(r)i yau (galdu au), esan zioten edariak akitua zegon gaxoari.*
Eta arek erantzun: Edari onetik edan ba.
- 1605 *Egalik gabe aidera? Bere burua galtzera.*
- 1606 *Gure katuak buztana luze: bertzi(a)k ala dirala uste.*
Beste lekuetan olatsu.
- 1607 *Ire errana, ta auntzen gauerdiko puzkerra, biak igual.*
- 1608 *Kanpoan eder, ta etxean uger.*
Uger = aserre, muzin, muker.
- 1609 *Ori ez da gure bildotxain ama.*
Ori ez da gure aurrak esandako ipuia.
- 1610 *Sagarra lore lore denbora denian, gazteak anak arin soñua denian.*
- 1611 *Urtiak adarra luzia.*

Urtearen buruan bear asko sortzen, eta gorde egin bear geroko, zer gerta ere.